

BARANDIARAN 125 NAZIOARTEKO ENBAXADORE

1889ko abenduaren 31n jaio zen Ataunen Joxemiel Barandiaran Aierbe; aurtan, hain zuzen, 125. urteurrena.

Hil zela ere, joanak dira 23 urte eta, harrezkero bere irudia lausotzen ari da, urteak joan ahala. Ez da harritzekoa, munduak azken urte laburrotan izan duen aldaketa kontuan izanik.

Hala ere, urteurrenaz baliatuz, aipa dezagun EUSKAL KULTURGINTZARI eginiko ekarpena.

Nahiz eta XIX. mendean jaiotakoa izan, XX. mendea ia osorik harrapatu zuen; hortik, datorkio urteek emandako esperientzia eta ikasbidea.

Gazte-gaztetatik azaldu zuen ikasketetarako trebezia berezia eta aparta. Inguruko hizkuntzak aise menderatu zituen. Beroriei esker ibili zen Europan zehar hainbat eta hainbat biltzarretan, hangoa ikasi, hona ekarri eta aplikatu eta, bide batez, Euskal Herriaren berri munduan emanez. Horren testigu izan ziren garai hartako Europako ikertzaile eta intelektual asko, 1913an LEIPZIG-etik hasi eta 1964an Moskurako bidaia galarazi zioten arte; tartean ikastegi eta irakastegi izan zituen Paris, Kolonia, Munich, Leipzig, Berlin, Munster, Anberes, Brusela, Tilburg, Lyon, Geneva, Berna, Zurich, Innsbruck, Luzerna, Interlach, Bordele,artzelona, Zaragoza, Praga, Kopenhage, London, Brusela, Salamanka, Porto...

Giltzarria, ordea, WILHEM WUNDT irakaslea izan zen: "Noiz hasi behar duzue oinekin/oinez pentsatzen eta buruare-

kin/buruz ibiltzen?” “Ez dago urrutietara joan beharrik, bakoitzak bere ingurua ezagutzetik hasi behar du”.

Halaxe ekin zion ikerketari, Ataungo Jentilbaratzan. Berehala etorri ziren Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuan, 28 urte besterik ez zituela, egindako hiru hitzaldiak. Han bilduriko agintari, irakasle eta ikertzaileak harrিতa geratu ziren Barandiaran gaztearen jakinduriaz, lanerako zorrotasunaz, ikerlaren fidagarritasunaz eta zientifikotasunaz.

Ingurua ikertzen hasi eta Euskal Herriarekin egin zuen topo. Horrek ekarriko zion, gerora, bere bizitza zedarrituko zuen erbesteratze luzea, buruhausterik handiena: *Ze eĩñ diat, ba, nik?* Galdetzen zion etengabe bere buruari, batez ere, urtearen amaiera iristen zenean. “1939ko abenduaren 31n 50 urte. Euskal Herrian lan egin dut, bertan jaio eta euskaldun naizela. Zorritzarrez, garai honetan Euskal Herria ikasi eta aztertzea separatistoztat jotzen dira. Horregatik nago desterruan...”.




Barandiaran etxe ingurua

Ipar Euskal Herrian Hegoaldean hasitako bide beretik jarraitu zuen: ingurukoa jaso eta aztertzen. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza ez ezik, Manuel de Ynchausti mezenasa izan zuen bizitzeko adina ematen ziona. Frantziako gobernuarengandik ere jasotzen zuen egindako lanaren trukeko laguntza.

1953an itzuli zen Atauna 63 urterekin, bere ustez zahartuta, etsipenak jota, lanik ez, hau da, bizibiderik ez, adiskideak urri, auzoko erretoreak ez zuen gogoko, herriko agintariak MUZIN! ZER EGIN? Lazkaoko beneditarrengana jotzen du, bere proiektuaren jarraipena norbaitzuegan uzteko. Etenda zeuden lanek gidari eta antolatzaile bat behar zuten eta eginalak egin, azkenean, Jesus Eloseggi eta abarren bidez, lortu zuen.

Bizi egin behar eta Iparraldeko lanekin jarraitu zuen urte askoan, baita Nafarroako Unibertsitatean ere, gerraurrean utzitako indusketekin uztartuz eta ETNIKER taldeak sortuz. Baina beti ikasten jarraitzen zuen. 80 urte ondo beteta zituela *“Mendiurkulluko Pelipena nijek ikastea”*. Honelakoxeak, horrelakoxeak eta halakoxeak aurki daitezke bere egunerokoen altxorrean.



Artikuluua

Harrezkero bizi izandako mundualdi luzean, majo kostata, Euskal Herri osoko erakunde, agintari eta herritarren esker ona jaso eta ohorea izateko aukera izan zuen; nahiz eta berak berriro ere esan: *“Ze eĩñ diat, pa, nik?”*.

Gladys Villalba kazetari hego-amerikarrak hara zer dion: *“Barandiaran elkarritzketatu nuenean erabaki nuen euskaldun izatea”*.

Maripetraliñ, Samartin-txiki, Torto, Mateo Txistu eta Kixmi-ren esaundak ere bizirik diraute.

“Baztarrak izketan aizaizkiak”. Azken urteetan sarri aipatzen zuen esaldia eta leku-izen eta pasadizo mordo lerratzen zuen Ataungo euskararen hikako eran:

- Zeiñ onan?
- Ekatzan jostorratza, neonek sartuko zonat arie ta!
- Ze esan diñ?
- Nun jarri den?
- Arratingoa etoi al den?
- Non itzenan? Ezai urrutia jun, iltzea gertauta re!
- Bialdu eitten tzetuk!
- Ze bear do, osoa?
- Gaurko naikoa do!
- Osoa, bixitea dauke?



Gogozko bere eserlekua

Barandiaran'go Joxemiel

Euskal Herriaren Memoria Historikoan geratuko dira euskal kulturaren zuztar irmoen baitan Barandiaranen ekarpenak. Eskoletako curriculumetan izango ahal dute txokorik!

Jexux Aizpurua Barandiaran
(Barandiaran fundazioko kide)
(2014)